Eguneraketa
2007/11/16
Actualización

# §B8

## LEY 2/2007, DE 23 DE MARZO, DE METODOLOGÍA DE DISTRIBUCIÓN DE RECURSOS Y DE DETERMINACIÓN DE LAS APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES A LA FINANCIACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO APLICABLE AL PERÍODO 2007-2011

## 2/2007 LEGEA, MARTXOAREN 23KOA, BALIABIDEEN BANAKETARAKO ETA FORUALDUNDIEK EUSKAL ANTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTUAK FINANTZATZEKO EGIN BEHARREKO EKARPENAK ZEHAZTEKO 2007-2011 ALDIAN APLIKATUKO DEN METODOLOGIARI BURUZKOA

# LEY 2/2007, DE 23 DE MARZO, DE METODOLOGÍA DE DISTRIBUCIÓN DE RECURSOS Y DE DETERMINACIÓN DE LAS APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES A LA FINANCIACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO APLICABLE AL PERÍODO 2007-2011

(BOPV nº 70, de 12 de abril de 2007)

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El artículo 22 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, en su apartado octavo, establece que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas aprobará la metodología de distribución de recursos y la determinación de las aportaciones de cada territorio histórico a los gastos presupuestarios de la Comunidad Autónoma con vigencia para períodos mínimos de tres años presupuestarios, salvo que concurran circunstancias excepcionales a juicio del consejo que aconsejen su vigencia para uno y dos ejercicios. Asimismo, el Gobierno elevará al Parlamento, para su aprobación, el correspondiente proyecto de ley que incorporará la metodología antes citada que hubiere acordado el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

En aplicación de dicho precepto, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas ha acordado la metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de cada territorio histórico a los gastos presupuestarios de la Comunidad Autónoma aplicable a los ejercicios 2007, 2008, 2009, 2010 y 2011.

En relación con el modelo de distribución vertical de recursos, la metodología aprobada mantiene en sus grandes líneas el sistema anterior. El aspecto novedoso más significativo es de carácter cuantitativo: el valor asignado al coeficiente vertical se sitúa en el 70,04%, frente al 70,44% del quinquenio anterior. Esta reducción se ha trasladado íntegramente a aumentar la participación de los entes locales en los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico, modificándose para ello el porcentaje mínimo de participación recomendado.

Además, se han introducido las previsiones necesarias para recoger los aspectos que se puedan derivar de los nuevos acuerdos con la Administración del Estado en relación con la metodología de cálculo del cupo para el quinquenio 2007-2011.

# 2/2007 LEGEA, MARTXOAREN 23KOA, BALIABIDEEN BANAKETARAKO ETA FORU-ALDUNDIEK EUSKAL ANTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTUAK FINANTZATZEKO EGIN BEHARREKO EKARPENAK ZEHAZTEKO 2007-2011 ALDIAN APLIKATUKO DEN METODOLOGIARI BURUZKOA

(70 zenbakidun EHAA, 2007.eko apirilaren 12koa)

## ZIOEN AZALPENA

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 22. artikuluko zortzigarren puntuak dioenez, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartu behar du metodologia, batetik, baliabideak banatzeko metodologia, eta, bestetik, lurralde historiko bakoitzak Autonomia Erkidegoaren aurrekontugastuetarako egin beharreko ekarpenak zehaztekoa; metodologia hori, gutxienez, hiru aurrekontu-urtean egongo da indarrean, baldin eta, Kontseiluaren iritziz, salbuespen-egoeraren bat gertatzen ez bada, horrelakoetan, indarraldi hori urtebetera edo bi urtetara mugatzea erabaki daitekeelako. Era berean, Eusko Jaurlaritzak, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak ontzat emandako metodologia hori jasota, dagokion lege-proiektua bidaliko dio Legebiltzarrari, hark onar dezan.

Xedapen hori aplikatuta, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak metodologia hori onartu du 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2011 ekitaldiei begira, batetik, ekitaldi horietan baliabideak banatzeko, eta, bestetik, lurralde historiko bakoitzak Autonomia Erkidegoaren aurrekontugastuetarako egin beharreko ekarpenak zehazteko.

Baliabideen banaketa bertikalaren ereduari dagokionez onartu den metodologiak aurreko sistemaren ildo nagusiak erabiltzen ditu, oro har. Berrikuntzarik aipagarriena kantitateari dagokio: koefiziente bertikalari izendatutako balioa % 70,04koa izango da orain, eta aurreko bosturtekoan % 70, 44koa izan zen. Murrizketa toki-erakundeen partaidetza handitzera zuzendu da erabat, Ekonomia-itunaren kudeaketatik datozen dirusarreretan duten partaidetza handituta; horretarako, aholkuen arabera zehaztutako partaidetza-portzentaje minimoa aldatu da.

Horrez gain, aintzat hartu beharreko aurreikuspenak ere hartu dira kontuan, 2007-2011 bosturtean kupoa kalkulatzeko metodologia dela-eta, Estatuko Administrazioarekin sinatutako akordio berrietatik etor daitezkeen egoera berriak ere jasota egon daitezen.

Es en relación con el modelo de distribución horizontal donde la nueva metodología introduce la principal modificación. Así, se establece un ajuste a la recaudación entre las Diputaciones Forales por principal impuesto concertado de carácter indirecto: el impuesto sobre el valor añadido. Este ajuste se realizará en función de los respectivos coeficientes horizontales, y, consecuentemente, se ha adaptado el indicador económico que refleja la capacidad recaudatoria del mismo.

Por último, se establece un Fondo General de Ajuste, que sustituye al anterior Fondo de Solidaridad, y cuyo importe se incrementa, pudiendo llegar a alcanzar el 1% de los recursos a distribuir entre las instituciones vascas. Este fondo se mantiene como un mecanismo de cierre del modelo, que permita corregir posibles desequilibrios en la distribución horizontal de los recursos derivados de la gestión del Concierto Económico entre las instituciones de los territorios históricos.

Dicha metodología, en cumplimiento de lo preceptuado en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, se incorpora como anexo a la presente Ley.

**Artículo único.–** Se aprueba el Acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, que se recoge como anexo a la presente Ley, en el que se establece para el periodo 2007-2011 la metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma y se fijan para el mismo periodo los coeficientes de aportación de las Diputaciones Forales a los gastos presupuestarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Metodologia berri honek, baina, banaketa horizontala egiteko ereduan dauka aldaketarik nabarmenena. Horrela, itundutako zeharkako zerga nagusi modura foru-aldundien artean egindako diru-bilketan egokitzapena egin da: balio erantsiaren gaineko zerga. Egokitzapen hori bakoitzak duen koefiziente horizontalaren arabera egin da, eta, horrenbestez, bakoitzak bil dezakeen diru-kopurua islatzen duen adierazle ekonomikoa egokitu da.

Azkenik, Egokitzapenerako Funts Orokorra ezarri da, eta, beraz, egokitzapen hau erabiliko da orain arte zegoen Solidaritate Funtsaren ordez; aurrerantzean, baliabideen % 1 ere izan daiteke euskal erakundeen artean banatu beharrekoa. Funts hori eredua erabat doitzeko mekanismoa izango da; era horretara, lurralde historikoetako erakundeen artean Ekonomia-ituna kudeatzetik datozen baliabideen banaketa horizontala egiterakoan sor daitezkeen desorekak zuzentzeko modua egon dadin.

Metodologia hori eranskin modura itsatsi zaio honako lege honi, betiere, azaroaren 25eko 27/1983 Legean xedatutakoari jarraituz.

**Artikulu bakarra.–** Onartu egin da Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren ondoko erabakia, eta lege honen eranskin moduan jaso da; baliabideen banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundien ekarpenak zehazteko metodologia ezarri da bertan 2007-2011 aldirako, baita foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuetako gastuetarako egin beharreko ekarpenen koefizienteak finkatu ere bosturteko horretarako.

# ANEXO

El Consejo Vasco de Finanzas Públicas, en sesión celebrada el día 18 de enero de 2007,

ACUERDA

## METODOLOGÍA DE DISTRIBUCIÓN DE RECURSOS Y DE DETERMINACIÓN DE LAS APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES A LA FINANCIACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO APLICABLE AL PERIODO 2007-2011

CAPÍTULO I

## MODELO DE DISTRIBUCIÓN VERTICAL

### Artículo 1.– Ingresos sujetos a reparto.

Los ingresos de las Diputaciones Forales derivados de la gestión del Concierto Económico afectos al reparto previsto en el artículo 20 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, son:

1.– Los procedentes de la recaudación por tributos concertados durante el ejercicio en curso, independientemente del año de su devengo o generación.

Los ingresos procedentes de la recaudación por tributos concertados están compuestos por:

a) Los impuestos directos concertados.

b) Los impuestos indirectos concertados.

c) Los tributos concertados sobre el juego.

d) Los recargos por declaración extemporánea, los recargos del periodo ejecutivo, los intereses de demora y las sanciones pecuniarias ingresadas por hechos imponibles referidos a los tributos concertados.

2.– Los intereses líquidos devengados a favor de las Diputaciones Forales, por razón de ingresos fiscales concertados durante cada ejercicio.

Su cuantía previsional se obtendrá aplicando a la prevista para el año anterior el índice de actualización a que se refiere el artículo 4 siguiente, ponderado por el índice resultante del cociente entre la previsión del tipo de interés bruto a acordar por la Administración de la Comunidad Autónoma con las instituciones financieras de la Comunidad para el ejercicio de que se trate y dicha previsión para el ejercicio inmediatamente anterior.

# ERANSKINA

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2007ko urtarrilaren 18an egindako bileran,

ERABAKI DU

## BALIABIDEEN BANAKETARAKO ETA FORU ALDUNDIEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTUAK FINANTZATZEKO EGIN BEHARREKO EKARPENAK ZEHAZTEKO 2007-2011 ALDIAN APLIKATUKO DEN METODOLOGIA

I. KAPITULUA

## BANAKETA BERTIKALAREN EREDUA

### 1. artikulua.– Banaketa-gai diren diru-sarrerak.

Honako hauek dira foru aldundiek Ekonomia Itunaren gainean egindako kudeaketatik sortutako diru-sarreretatik azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 20. artikuluan aurreikusitako banaketaren gai direnak.

1.– Zerga itunduak direla-eta, betetzen ari den ekitaldian bildutakoetatik etorritakoak, zerga horiek beste urte batean sortu izan arren.

Zerga itunduen bilketatik sortutako diru-sarrerak hemendik datoz:

a) Zuzeneko zerga itunduetatik.

b) Zeharkako zerga itunduetatik.

c) Jokoaren gaineko zerga itunduetatik.

d) Garaiz kanpoko aitorpenagatiko gainordainetatik, exekuzio aldiko gainordainetatik, berandutzeagatiko interesetatik, eta zerga itunduei dagozkien zergapeko egitateengatik sartutako diru-zehapenetatik.

2.– Ekitaldi bakoitzean diru-sarrera fiskal itunduak direla-eta, foru aldundien alde sortutako interes likidoak.

Interes horien kopurua aurreikusteko, hurrengo 4. artikuluan aipatutako egokitzapen-indizea aplikatuko zaio aurreko urterako aurreikusitakoari. Kopuru hori haztatu egin behar da, dena delako ekitaldirako Erkidegoko finantza-erakundeek eta Autonomia Erkidegoko Administrazioak itundutako interes-tasa gordinaren aurreikuspenaren eta aurre-aurreko ekitaldirako aurreikus-penaren zatiduraren indizearekin.

## Artículo 2.– Deducciones procedentes de la metodología del Cupo.

1.– A los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto se les deducirá:

a) La cantidad a pagar como Cupo líquido al Estado y, en su caso, el importe que resulte a favor del Estado por las Compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del Cupo vigente.

b) Con signo negativo, el importe que, en su caso, resulte a favor del País Vasco por las compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del Cupo vigente.

c) El importe de la financiación de las ampliaciones de la plantilla de la Policía Autónoma a partir del 1 de enero de 2002 previstas en la metodología de señalamiento del Cupo.

d) El importe que la Comisión Mixta de Concierto Económico acuerde minorar del Cupo para la financiación extraordinaria de funciones y servicios de competencia del País Vasco.

2.– Estas cantidades serán las resultantes de la aplicación en cada ejercicio, con carácter provisional, de lo estipulado en la metodología de señalamiento del Cupo del País Vasco vigente.

3.– Asimismo, los importes que se deriven de la liquidación definitiva de las deducciones definidas en el presente artículo se computarán en el ejercicio en que se realice dicha liquidación.

## 2. artikulua.– Kupoaren metodologiatik sortutako kenkariak.

1.– Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortu eta banaketagai diren diru-sarrerei hau kenduko zaie:

a) Estatuari kupo likido moduan ordaindu beharreko kopurua, eta, hala dagokionean, kupoa zehazteko metodologian aurreikusitako konpentsazioak direla-eta Estatuaren alderako den zenbatekoa.

b) Zeinu negatiboarekin, hala dagokionean, indarreko kupoa zehazteko metodologian aurreiku-sitako konpentsazioak direla-eta Euskal Herriaren alderako den zenbatekoa.

c) 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera Ertzaintzaren plantilla handitu izanak finantzatzeko zenbatekoa, plantilla handitze horiek Kupoa zehazteko metodologian aurreikusitakoak direlarik.

d) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren eginkizunek eta zerbitzuek ezohiko finantzaketa jaso dezaten Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak kupotik gutxitzea erabaki dezan zenbatekoa.

2.– Euskadiko Kupoa zehazteko indarrean dagoen metodologian xedatutakoa ekitaldi bakoitzean behin-behinean aplikatzetik sortutakoak izango dira kopuru horiek.

3.– Artikulu honetan zehaztutako kenkarien behin betiko likidaziotik sortutako kopuruak, era berean, likidazio hori zein ekitalditan egin den kontuan hartuta, ekitaldi horretan zenbatuko dira.

## Artículo 3.– Deducción especial.

1.– A los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto se les practicará una deducción especial por la cantidad correspondiente a la realización por parte del Gobierno de las políticas de planificación, promoción y desarrollo económico, así como la adopción de medidas tendentes a asegurar la estabilidad política y económica de la Comunidad Autónoma, en cumplimiento del artículo 22.tercero de la Ley 27/1983.

2.– Esta cuantía se obtendrá aplicando a la correspondiente previsión para el ejercicio anterior el índice de actualización a que se refiere el artículo 4 siguiente.

3.– A propuesta del Gobierno, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas podrá acordar destinar dicha cuantía a la financiación de los proyectos a los que se refiere la disposición adicional tercera de la presente metodología.

## 3. artikulua.– Kenkari berezia.

1.– Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortu eta banaketagai diren diru-sarrerei kenkari berezi bat ezarriko zaie, Jaurlaritzak egindako lanengatik, bai ekonomiaren plangintza-, sustapen- eta garapen-politikak egiteagatik eta bai, 27/1983 Legeko 22. artikuluko hirugarren puntua betetze aldera, Autonomia Erkidegoaren politikaren eta ekonomiaren egonkortasuna bermatzeko neurriak hartzeagatik.

2.– Kopuru hori lortzeko, hurrengo 4. artikuluan aipatutako egokitzapen-indizea aplikatuko zaio aurreko ekitaldirako aurreikuspenari.

3.– Jaurlaritzaren proposamenez, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak kopuru hori metodologia honetako Hirugarren Xedapen Gehigarrian aipatutako proiektuak finantzatzeko jartzea erabaki lezake.

## Artículo 4.– Índice de actualización.

El índice de actualización al que se refieren los artículos 1 y 3 anteriores será el cociente entre la previsión de recaudación por tributos concertados, en concreto los recogidos en el artículo 1.1 a nivel de la Comunidad Autónoma para el ejercicio de que se trate, y dicha previsión de recaudación para el ejercicio inmediatamente anterior.

## 4. artikulua.– Egokitzapen-indizea.

Aurreko 1 eta 3. artikuluetan aipatutako egokitzapen-indizea zera izango da: dena delako ekitaldirako Autonomia Erkidegoko zerga itunduen bilketaren aurreikuspenaren, zehazki 1.1 artikuluan aipatutakoen bilketaren aurreikuspenaren, eta aurre-aurreko ekitaldirako bilketa-aurreikuspenaren zatidura.

## Artículo 5.– Recursos a distribuir.

Los Recursos a distribuir (RD) en el modelo vertical son los obtenidos por diferencia entre los ingresos sujetos a reparto definidos del artículo 1 y las deducciones de los artículos 2 y 3 precedentes. Su formulación es la siguiente:

RD = R – (D + P)

donde:

– R son los Ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto.

– D son las deducciones procedentes de la metodología del Cupo (D).

– P es la deducción especial.

## Artículo 6.– Coeficiente de distribución vertical.

El coeficiente de distribución vertical que tendrá vigencia para el quinquenio 2007-2011 se determina en el 70,04%. La metodología seguida para su determinación se recoge en el anexo I.

En el supuesto de que durante el período de vigencia se produjeran traspasos de servicios entre la Administración Central del Estado y la Comunidad Autónoma, o entre las instituciones comunes y las Diputaciones Forales, se estará a lo dispuesto en los artículos 9 y 10 siguientes.

## Artículo 7.– Aportación general.

La Aportación de las Diputaciones Forales al sostenimiento de las cargas generales de las instituciones comunes se calculará aplicando el coeficiente de distribución vertical definido en el artículo 6 a los recursos a distribuir definidos en el artículo 5. Su formulación es la siguiente:

70,04% RD

## Artículo 8.– aportaciones específicas.

Además de la aportación general a que se refiere el artículo anterior, las Diputaciones Forales procederán a efectuar aportaciones específicas a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma por los siguientes conceptos:

a) Financiación de las ampliaciones de la Policía Autónoma realizadas desde el 1 de enero de 2002, por el importe de la deducción definida en el artículo 2.1.c).

b) Financiación extraordinaria de funciones y servicios de competencia del País Vasco, cuando el ejercicio de la competencia corresponda a las instituciones comunes, por el importe de la deducción definida en el artículo 2.1.d).

## 5. artikulua.– Banatu beharreko baliabideak.

Eredu bertikalean, banatu beharreko baliabideak (RD) hauek dira: artikuluan zehaztutako banaketa-gai diren diru-sarreren eta aurreko 2 eta 3. artikuluetako kenkarien arteko kendura. Hauxe da formula:

RD = R – (D + P)

hor:

– R, Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortu eta banaketa-gai diren diru-sarrerak dira.

– D, kupoaren metodologiatik sortutako kenkariak dira (D).

– P, kenkari berezia da.

## 6. artikulua.– Banaketa bertikalerako koefizientea.

2007-2011 bosturtekorako indarrean egongo den banaketa bertikalerako koefizientea % 70,04 izango da. Bertoko I. eranskinean jasotzen da koefizientea zehazteko erabilitako metodologia.

Hori indarrean dagoen aldian zerbitzuak eskualdatzen badira Estatuko Administrazio Nagusiaren eta Autonomia Erkidegoaren artean, zein Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta foru aldundien artean, hurrengo 9. eta 10. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

## 7. artikulua.– Ekarpen orokorra.

Foru aldundiek Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen zama orokorrei eusteko egin beharreko ekarpena kalkulatzeko, 6. artikuluan zehaztutako banaketa bertikalerako koefizientea aplikatuko zaie 5. artikuluan zehaztutako banatu beharreko baliabideei. Hauxe da formula:

% 70,04 RD

## 8. artikulua.– Ekarpen bereziak.

Aurreko artikuluan aipatutako ekarpen orokorraz gain, foru aldundiek ekarpen bereziak egingo dizkiete Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei kontzeptu hauek direla eta:

a) 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera Ertzaintzari dagokionez gertatutako handitu izanak, 2.1.c) artikuluan zehaztutako kenkariaren kopuruarekin.

b) Euskadiren eskumenekoak diren eginkizunen eta zerbitzuen ezohiko finantzaketa baldin eta eskumenean jardutea erakunde erkideei badagokie, 2.1.d) artikuluan zehaztutako kenkariaren kopuruarekin.

c) Contribución a la realización por parte del Gobierno de las políticas y funciones recogidas en el artículo 22 tercero de la Ley 27/1983, por idéntico importe a la deducción definida en el artículo 3.

c) Lehen aipatutako 27/1983 Legeko 22. artikuluko hirugarren puntuan jasotako politikak eta funtzioak Jaurlaritzak egin ditzan laguntzeko, 3. artikuluan zehaztutako kenkariaren zenbateko berberarekin.

## Artículo 9.– Efectos por variación en las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en su financiación.

1.– Si durante la vigencia de la presente metodología se produjeran nuevos traspasos de servicios desde la Administración Central del Estado a la Comunidad Autónoma, se procederá a efectuar una deducción adicional a las especificadas en el artículo 2, por el mismo importe que la minoración que proceda efectuar en el Cupo a pagar al Estado en el ejercicio presupuestario correspondiente.

Igualmente se operará en el caso de que de la aplicación de la metodología de Cupo vigente se produzca una nueva financiación en materias cuya ejecución corresponda al País Vasco.

2.– En los ejercicios presupuestarios siguientes del quinquenio, si los hubiere, la cuantía anual de la deducción y de la aportación específica suplementaria correspondiente a los nuevos traspasos de servicios que proceda se actualizará por aplicación del índice de actualización que se utilice para la actualización del Cupo líquido al Estado, según se derive de la metodología de señalamiento del Cupo vigente.

En el supuesto de que el traspaso no tuviera efectividad desde el uno de enero del ejercicio correspondiente, para los ejercicios presupuestarios siguientes se actualizará la cuantía de la deducción después de efectuados los ajustes oportunos en orden a su consideración anual.

3.– La cuantía anual de la deducción y de la aportación específica suplementaria que corresponda a la nueva financiación en materias cuya ejecución corresponda al País Vasco será la que en cada ejercicio se derive de lo previsto en la metodología de Cupo vigente.

## 9. artikulua.– Eraginak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenetan baita finantzaketan ere aldaketak izateagatik.

1.– Metodologia hau indarrean dagoen aldian Estatuko Administrazio Nagusiak beste zerbitzu batzuk eskualdatzen badizkio Euskal Autonomia Erkidegoari, 2. artikuluan zehaztutako kenkariei beste kenkari gehigarri bat egingo zaie, dena delako ekitaldiko aurrekontuetan Estatuari ordaindu beharreko kupoan egin behar den gutxitzearen besteko zenbatekokoa.

Berdin jokatuko da baldin eta indarrean dagoen kupoaren metodologia aplikatzetik finantzaketa berri bat gertatzen bada, hain zuzen ere gai haietan non exekuzioa Euskadiri dagokion.

2.– Bosturtekoaren hurrengo aurrekontu-ekitaldietan, halakorik balego, eguneratu egingo da kenkariari eta zerbitzuen eskualdaketa berrien gaineko ekarpen berezi osagarriari dagokien urteko zenbatekoa, Estatuari ordaindu beharreko kupo likidoa eguneratzeko erabilitako eguneratze-indize bera aplikatuz, indarrean dagoen kupoa zehazteko metodologiatik erator dadin moduan.

Baldin eta eskualdaketa egiten denean bere eragina ez bada dena delako ekitaldiko urtarrilaren batekoa, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan eguneratu egin behar da kenkariaren zenbatekoa, bidezko egokitzapenak egin eta gero urte osoko moduan hartu ahal izateko.

3.– Urteko zenbatekoa, kenkariari nahiz zerbitzuen eskualdaketa berrien gaineko ekarpen berezi osagarriari dagokiena, betiere Euskadiren exekuzioaren eraginpeko gaien finantzaketari badagokie, indarreko metodologian aurreikusitakotik ekitaldi bakoitzean eratortzen dena izango da.

## Artículo 10.– Nuevos traspasos de servicios entre las Instituciones del País Vasco.

1.– Si durante un ejercicio presupuestario se produjeran traspasos de servicios desde las instituciones comunes a los órganos forales derivados de la asunción, con anterioridad a la aprobación de la presente metodología, de traspasos de servicios desde la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma, se procederá a minorar la aportación general regulada en el artículo 7, por el importe que resulte de aplicar a la valoración de dichos servicios incorporada en el cálculo del coeficiente vertical definido en el artículo 6 el índice de actualización definido en el apartado 2 siguiente.

En el supuesto de que la efectividad del nuevo traspaso no coincidiese con el uno de enero del ejercicio se procederá a prorratear la valoración de dichos servicios proporcionalmente a la parte del año en que los órganos forales hubieran asumido tales competencias, con efectos exclusivos para el ejercicio en que se produzca el traspaso.

## 10. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen artean beste zerbitzu batzuk eskualdatzea.

1.– Aurrekontu-ekitaldiren batean Autonomia Erkidegoko erakunde erkideetatik foru aldundiei zerbitzuak eskualdatzen bazaizkie, metodologia hau onartu aurretik Estatuko Administraziotik Autonomia Erkidegoari zerbitzuak eskualdatu zaizkiolako, gutxitu egingo da 7. artikuluan arautako ekarpen orokorra, 6. artikuluan koefiziente bertikalerako zehaztutako kalkuluan zerbitzu horiek direla-eta sartutako balioespenari hurrengo 2. paragrafoan zehaztutako egokitzapen-indizea aplikatuta ateratako zenbatekoarekin.

Eskualdaketa berriaren eraginkortasuna ekitaldi horretako urtarrilaren batean hasten ez bada, zerbitzu horien balioespena hainbana hartuko da foru-organoek eskumenok eskuratu dituzten urte-zatiaren arabera, baina horren eragina eskualdaketa gertatu den ekitaldirako izango da bakarrik.

La citada reducción proporcional tendrá en cuenta la periodicidad real de los gastos corrientes, así como el efectivo grado de realización de las inversiones.

Hainbanako murrizketa horrek gastu arrunten benetako aldizkakotasuna hartuko du kontuan, baita inbertsioak benetan zein mailatan gauzatu diren ere.

2.– El índice de actualización para la valoración de los traspasos será el cociente entre los recursos a distribuir para el año de que se trate y los recursos a distribuir en el año 2007, calculados ambos con criterios homogéneos.

2.– Eskualdaketen balioespenerako egokitzapen-indizea zatidura bat izango da, dena delako urtean banatu beharreko baliabideen artean eta 2007. urtean banatu beharreko baliabideen artean zatiketa eginda, bien kalkuluan ere irizpide homogeneoak erabilita.

3.– En los ejercicios presupuestarios siguientes del quinquenio, si los hubiere, la cuantía anual de la minoración que proceda se actualizará por aplicación del índice de actualización definido en el apartado anterior.

3.– Bosturtekoaren hurrengo aurrekontu-ekitaldietan, halakorik balego, aurreko paragrafoan zehaztutako egokitzapen-indizea aplikatuz egokituko da bidezkoa den gutxitzearen urteko zenbatekoa.

4.– Se operará en sentido inverso si el traspaso fuera desde los órganos forales a las instituciones comunes.

4.– Alderantzizko eragiketa egingo da foru-organoek egiten badiete eskualdaketa Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei.

### Artículo 11.– Modificaciones en la financiación de la Policía Autónoma.

Una vez acordado con la Administración del Estado el coste de las ampliaciones de la Policía Autónoma computado en el cálculo del Cupo de cada año, debe entenderse que cualquier modificación dará lugar a la correspondiente valoración de la deducción a que se refiere el artículo 2.1.c), así como de la aportación específica a que se refiere el artículo 8.a), por la misma cuantía que proceda considerar en el Cupo a satisfacer al Estado.

### 11. artikulua.– Ertzaintzaren finantzaketarako aldaketak.

Estatuko Administrazioarekin urte bakoitzeko kupoaren kalkuluan Ertzaintza handitzeko kostuak akordioz sartu eta gero, edozein aldaketa gertatzen bada, 2.1.c) artikuluan aipatutako kenkariaren balioespena egin behar da, baita 8.a) artikuluan aipatutako ekarpen bereziarena ere, Estatuari ordaindu beharreko kupoan kontuan hartu beharreko kopuru berberean.

### Artículo 12.– Modificaciones en la financiación extraordinaria de competencias asumidas.

Una vez acordado con la Administración del Estado el importe para la financiación extraordinaria de competencias asumidas por el País Vasco, debe entenderse que cualquier modificación dará lugar a la correspondiente valoración de la deducción a que se refiere el artículo 2.1.d), así como de la aportación específica a que se refiere el artículo 8.b), por la misma cuantía que proceda considerar en el Cupo a satisfacer al Estado.

### 12. artikulua.– Aldaketak Euskadik bere gain bereganaturiko eskumenen ezohiko finantzaketan.

Euskadiko bere gain hartutako eskumenen ezohiko finantzaketarako zenbatekoa Estatuko Administra-zioarekin akordioz erabaki eta gero, edozein aldaketa gertatzen bada, 2.1.d) artikuluan aipatutako kenkariaren balioespena egin behar da, baita 8.b) artikuluan aipatutako ekarpen bereziarena ere, Estatuari ordaindu beharreko kupoan kontuan hartu beharreko kopuru berberean.

### Artículo 13.– Modificaciones derivadas de la liquidación definitiva del Cupo y de las Compensaciones.

Una vez efectuada la liquidación definitiva del Cupo a pagar al Estado y de las compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del Cupo vigente, se procederá a incorporar los resultados de la misma dentro de las deducciones definidas en el artículo 2.1, así como a modificar las aportaciones específicas a que se refiere el artículo 8, en los términos que proceda.

### 13. artikulua.– Kupoaren eta konpentsazioen behin betiko likidazioetatik sortutako aldaketak.

Estatuari ordaindu beharreko kupoaren eta indarreko kupoa zehazteko metodologian aurreikusitako konpentsazioen behin betiko likidazioa egin ondoren, 2.1 artikuluan zehaztutako kenkarien barruan sartuko dira likidazio horren emaitzak, eta 8. artikuluan aipatutako ekarpen bereziak ere aldatu egingo dira, bidezkoa den moduan.

## CAPÍTULO II
## MODELO DE DISTRIBUCIÓN HORIZONTAL

## II. KAPITULUA
## BANAKETA HORIZONTALAREN EREDUA

## Artículo 14.– Coeficientes horizontales.

1.– Los coeficientes de contribución de cada territorio histórico a las aportaciones a efectuar a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, con vigencia para los ejercicios de 2007, 2008, 2009, 2010 y 2011 se obtendrán conforme a los criterios siguientes:

a) El 70 por ciento del coeficiente de contribución se obtendrá en función directa de la renta relativa de cada territorio histórico.

b) El 30 por ciento del coeficiente de contribución se obtendrá en función directa de la inversa del esfuerzo fiscal relativo de cada territorio histórico ponderado por la capacidad recaudatoria del mismo.

2.– La expresión matemática de estos criterios queda formulada mediante la siguiente ecuación:

## 14. artikulua.– Koefiziente horizontalak.

1.– Lurralde historiko bakoitzak Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei egin beharreko ekarpenei erantzuteko koefizienteak, 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2011ko ekitaldietan indarrean egoteko, irizpide hauen arabera aterako dira:

a) Ekarpenei erantzuteko koefizientearen ehuneko 70a lurralde historiko bakoitzaren errenta erlatiboaren arabera aterako da zuzenean.

b) Ekarpenei erantzuteko koefizientearen ehuneko 30a lurralde historiko bakoitzaren zerga-ahalegin erlatiboaren alderantzizkoaren arabera aterako da zuzenean, lurralde bakoitzak diru-bilketarako duen gaitasunarekin ahalegin hori haztatuta.

2.– Irizpide horien adierazpen matematikoa ekuazio-formula honekin azaltzen da:

$$A_i = 70\frac{Y_i}{Y} + 30\frac{CR_i \dfrac{T/Y}{T_i/Y_i}}{\sum_{i=1}^{3} CR_i \dfrac{T/Y}{T_i/Y_i}}$$

donde:

Ai = coeficiente de contribución de cada territorio histórico, en porcentaje de la aportación total.

Yi = renta del territorio i.

Y = renta de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Ti = recaudación del territorio i.

T = recaudación total de los tres territorios.

Cri = capacidad recaudatoria relativa del territorio i.

hor:

Ai = Lurralde historiko bakoitzak ekarpenei erantzuteko duen koefizientea da, ekarpen osoaren ehunekoaren arabera.

Yi = i lurraldearen errenta da.

Y = Euskal Autonomia Erkidegoaren errenta da.

Ti = i lurraldearen diru-bilketa da.

T = Hiru lurraldeen diru-bilketa osoa da.

Cri = i lurraldeak diru-bilketarako duen gaitasuna da.

3.– Los coeficientes de contribución de cada territorio histórico calculados para cada ejercicio no serán objeto de modificación a lo largo del mismo, siendo de aplicación hasta la liquidación de las aportaciones de dicho ejercicio, inclusive.

3.– Lurralde historiko bakoitzak ekarpenei erantzuteko koefizienteak ekitaldi bakoitzerako kalkulatu ondoren ez dira aldatuko ekitaldian zehar, eta horiek aplikatuko dira ekitaldiko ekarpenen likidazioa amaitu arte.

## Artículo 15.– Variables a utilizar en el cálculo de los coeficientes horizontales.

1.– A los efectos de aplicar los criterios de aportación del artículo anterior, las variables a utilizar deberán ajustarse a las definiciones siguientes:

## 15. artikulua.– Koefiziente horizontalak kalkulatzeko erabili beharreko aldagaiak.

1.– Aurreko artikuluko ekarpen-irizpideak aplikatu ahal izateko, definizio hauetara egokitu behar dira erabiliko diren aldagaiak:

a) Para la renta se utilizará el Producto Interior Bruto a precios de mercado de cada territorio relativo al total de la Comunidad Autónoma del País Vasco, tomándose la media aritmética de los pesos relativos de los datos de los últimos cuatro años publicados por el Instituto Vasco de Estadística.

b) El esfuerzo fiscal se define, de acuerdo con la Ley 27/1983, como la relación existente entre el importe de la recaudación anual por todos los conceptos tributarios, incluidos los de exacción municipal directa y la renta. Los conceptos tributarios citados son los recogidos en los capítulos I y II de los presupuestos de las Diputaciones Forales y ayuntamientos.

Los datos de recaudación utilizados corresponderán a los del último ejercicio finalizado.

Los datos de renta aplicables al cálculo del esfuerzo fiscal serán referidos al mismo año que los de recaudación. A tal efecto, se proyectará el último dato de Producto Interior Bruto a precios de mercado de cada territorio publicado por el Instituto Vasco de Estadística aplicándole las tasas de crecimiento monetario de dicha magnitud en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante los ejercicios que correspondiere.

La inversa del esfuerzo fiscal deberá necesariamente ser asociada multiplicativamente a la capacidad recaudatoria de cada territorio.

El cálculo de la capacidad recaudatoria se efectuará partiendo de la estructura recaudatoria de la Comunidad Autónoma del País Vasco en su conjunto, referida a los conceptos tributarios que se recogen en el anexo II, atribuyendo a cada concepto tributario su parte porcentual en la recaudación total. A cada concepto recaudatorio se le asocia, para cada territorio histórico, y en términos porcentuales respecto al total de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el indicador económico adecuado que da origen a la tributación. A partir de estos dos elementos y mediante ponderación del segundo por el primero, se calcula, igualmente en términos porcentuales respecto del total, la recaudación teórica o capacidad recaudatoria media de cada indicador para cada territorio histórico.

La suma de los resultados obtenidos para cada uno de los indicadores representa la capacidad recaudatoria de cada territorio histórico.

En el anexo II se detallan los indicadores económicos a utilizar para cada concepto recaudatorio. Cualquier modificación de dichos indicadores deberá aprobarse por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

2.– Los datos a utilizar para los diferentes indicadores y cálculos serán los últimos publicados por el Instituto Vasco de Estadística. En caso de no existir datos publicados, se utilizarán estimaciones efectuadas a tal efecto por el Instituto Vasco de Estadística o los últimos datos disponibles de aquellas fuentes estadísticas que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas estime más pertinentes.

a) Errentarako, lurralde historiko bakoitzaren barne-produktu gordina hartuko da, merkatu-prezioetan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren guztizkoarekin erkatuta; eta Euskal Estatistika Erakundeak argitaratutako azken lau urteetako datuen pisu erlatiboen batez besteko aritmetikoa hartuko da.

b) Ahalegin fiskala, 27/983 Legearekin bat etorriz, honela definitzen da: zerga-kontzeptu guztiak direla-eta urteko diru-bilketaren zenbatekoaren eta errentaren artean dagoen erlazioa da, udalen zuzeneko ordainarazpeneko zergak diru-bilketaren barne hartuta. Aipatutako zerga-kontzeptuak foru aldundietako eta udaletako aurrekontuetako I eta II. kapituluetan jasotakoak dira.

Amaitutako azken ekitaldikoak izan behar dute erabilitako diru-bilketako datuek.

Zerga-ahalegina kalkulatzeko aplikatuko diren errentako datuek eta diru-bilketakoek urte berekoak izan behar dute. Horretarako, lurralde historiko bakoitzaren barne-produktu gordinaren azken datuaren proiekzioa egingo da, merkatu-prezioetan, Euskal Estatistika Erakundeak argitaratu-takoaren arabera, eta kasuan kasuko ekitaldietan Euskal Autonomia Erkidegoan magnitude horrek dirutan izan dituen hazkunde-tasak aplikatuko zaizkio.

Zerga-ahaleginaren alderantzizkoa nahitaez lotu behar da multiplikazioz lurralde bakoitzaren diru-bilketarako gaitasunarekin.

Euskal Autonomia Erkidego osoaren diru-bilketarako egituratik abiatuta egingo da diru-bilketarako gaitasunaren kalkulua, II. eranskinean jasotako zerga-kontzeptuei dago-kienez, eta zerga-kontzeptu bakoitzari diru-bilketa osoan duen ehuneko partea egotziko zaio. Diru-bilketako kontzeptu bakoitzari eta lurralde historiko bakoitzari zergak ordaindu beharra sorrarazten duen ekonomia-adierazle egokia lotuko zaio, Euskal Autonomia Erkidego osoarekiko ehunekoetan. Osagai bi horietatik abiatuta eta lehenengoarekin bigarrena haztatuta kalkulatuko da lurralde historiko bakoitzerako adierazle bakoitzaren diru-bilketa teorikoa edo diru-bilketarako batez besteko gaitasuna, guztizkoarekiko ehune-koetan.

Adierazle bakoitzerako lortutako emaitzen batuketak adieraziko du lurralde historiko bakoitzaren diru-bilketarako gaitasuna.

II. eranskinean zehazten dira diru-bilketako kontzeptu bakoitzerako erabili beharreko ekonomia-adierazleak. Adierazle horiek aldatu behar diren bakoitzean Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak onartu beharko ditu.

2.– Adierazleetarako eta kalkuluetarako erabiliko diren datuek Euskal Estatistika Erakundeak argitaratutako azkenak izan beharko dute. Argitaratutako daturik es badago, Euskal Estatistika Erakundeak horretarako egindako zenbatespenak erabiliko dira, edo Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak egokien iritzitako estatistika-iturrietan erabilgarri dauden azken datuak.

### Artículo 16.– Cálculo de la aportación de cada territorio histórico.

La aportación de cada territorio histórico a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma se obtendrá por aplicación del coeficiente horizontal correspondiente al territorio histórico, calculado conforme a los artículos 14 y 15 anteriores, al importe de las aportaciones general y específicas definidas en el capítulo I anterior.

### 16. artikulua.– Lurralde historiko bakoitzaren ekarpenaren kalkulua.

Lurralde historiko bakoitzak Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei egin behar dien ekarpena lortzeko, lurralde historiko bakoitzaren koefiziente horizontala, aurreko 14. eta 15. artikuluen arabera kalkulatutakoa, aplikatu behar zaio aurreko I. kapituluan zehaztutako ekarpen orokorraren eta berezien zenbatekoari.

### Artículo 17.– Ajustes a la recaudación entre las Diputaciones Forales.

Los ingresos de cada una de las Diputaciones Forales procedentes de la recaudación real por el Impuesto sobre el Valor Añadido, por cada uno de los Impuestos Especiales de Fabricación y por el Impuesto sobre las Ventas Minoristas de determinados Hidrocarburos, independientemente del año de su devengo o generación, se ajustarán por la diferencia entre el resultado de aplicar el coeficiente horizontal de su territorio histórico para dicho ejercicio a la recaudación real del conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco por cada uno de dichos conceptos tributarios, y su correspondiente recaudación real por el mismo concepto tributario.

### 17. artikulua.– Egokitzapenak foru aldundien arteko diru-bilketari.

Balio Erantsiaren gaineko zergagatik, Fabrikazio-zerga berezi bakoitzagatik eta zenbait hidrokar-buroren txikizkako salmentaren gaineko zergagatik benetan biltzen denetik eratorritako diru-sarrerak foru-aldundi bakoitzaren kasura egokitzeko, kenketa bat egin behar da, sortu zireneko urtea kontuan hartu gabe; horretarako, aipatutako zerga-kontzeptu bakoitzarengatik Euskal Autonomia Erkidego osoak lortutako benetako diru-bilketari lurralde historikoaren dena delako ekitaldirako koefiziente horizontala aplikatuta lortutako emaitza hartu, eta zerga-kontzeptu berbera dela-eta lortutako benetako diru-bilketari kendu behar zaio, eta kenduraren arabera egokituko dira.

### Artículo 18.– Otros flujos financieros entre instituciones.

1.– La contribución de cada territorio histórico al Cupo líquido a pagar al Estado y su participación en las compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del Cupo vigente se determinará por aplicación sobre los respectivos importes del correspondiente coeficiente horizontal.

2.– La distribución por territorios históricos del Ajuste a la recaudación por el Impuesto sobre el Valor Añadido y de los ajustes a la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación previstos en los artículos 53 y 54 del Concierto Económico se efectuará en proporción a los coeficientes horizontales de cada territorio.

3.– Los coeficientes horizontales a utilizar en los apartados 1 y 2 anteriores serán los correspondientes al ejercicio en que se realizan los respectivos flujos financieros.

### 18. artikulua.– Erakundeen arteko beste finantza-emari batzuk.

1.– Estatuari ordaindu beharreko kupo likidorako lurralde historiko bakoitzaren ekarpena eta indarrean dagoen kupoa zehazteko metodologian aurreikusita dauden konpentsazioetako parte-hartzea finkatzeko, dagokion koefiziente horizontala aplikatuko da lurralde bakoitzaren zenbatekoen gainean.

2.– Balio erantsiaren gaineko zergaren diru-bilketarako egokitzapena lurralde historikoen artean banatzeko, eta Ekonomia Ituneko 53. eta 54. artikuluetan aurreikusitako fabrikazio-zerga berezien diru-bilketarako egokitzapenak banatzeko, lurralde bakoitzaren koefiziente horizontalen ehunekoaren arabera egingo da.

3.– Aurreko 1. eta 2. idatz-zatietan erabili beharreko koefiziente horizontalak finantza-emari bakoitza egiten den ekitaldiari dagozkionak izango dira.

## CAPÍTULO III
## FONDO GENERAL DE AJUSTE

## III. KAPITULUA
## EGOKITZAPENERAKO FUNTS OROKORRA

## Artículo 19.– Definición y objetivo.

El Consejo Vasco de Finanzas Públicas establecerá anualmente un Fondo General de Ajuste al que contribuirán las instituciones comunes y las tres Diputaciones Forales con el objeto de asegurar que, salvo causas derivadas de diferencias normativas o de gestión, la participación relativa en la recaudación total del País Vasco para cada territorio histórico, una vez deducida su contribución al propio Fondo, alcance el 99% de su coeficiente horizontal, así como cualquier otra circunstancia de carácter extraordinario que a juicio del Consejo Vasco de Finanzas Públicas deba atenderse con dicho fondo.

## 19. artikulua.– Definizioa eta xedea.

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak Egokitzapenerako Funts Orokorra eratuko du urtero, eta erakunde erkideek eta hiru foru aldundiek egingo dituzte bertarako ekarpenak; xedea bikoitza izango da: batetik, arauen artean edo kudeaketa egiteko moduan dauden ezberdintasunetatik sortutako arrazoiak salbu, eta funtsera egin beharreko ekarpena kendu ondoren, lurralde historiko bakoitzak Euskadiko diru-bilketa osoan izango duen parte-hartze erlatiboa bere koefiziente horizontalaren % 99ra iritsiko dela bermatzea, eta, bestetik, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren iritziz funts horrekin erantzun behar den ohiz kanpoko beste edozein gorabeherari erantzutea.

## Artículo 20.– Importe, contribución y distribución.

El importe y la distribución institucional de dicho fondo, tanto para su cálculo provisional como definitivo, se determinará de acuerdo con las siguientes reglas:

1.– Importe del Fondo General de Ajuste.

La cuantía del Fondo General de Ajuste se determinará por el cociente entre:

– la suma de los importes de signo positivo que resulten de aplicar a la recaudación sujeta a reparto definida en el artículo 1.1 la diferencia entre el 99% del coeficiente horizontal y la respectiva participación relativa en la recaudación total del País Vasco para cada territorio histórico, y

– la suma de los coeficientes verticales de las instituciones comunes y de las Diputaciones Forales cuya recaudación relativa se haya situado por encima del 99% de su coeficiente de aportación.

A estos efectos se define el coeficiente vertical que corresponde a cada uno de los territorios históricos como el que se deriva de aplicar el correspondiente coeficiente horizontal al complementario del coeficiente vertical de las instituciones comunes.

El importe máximo del Fondo General de Ajuste no superará el 1% de los recursos a distribuir definidos en el artículo 5.

2.– Contribución al Fondo General de Ajuste.

a) La contribución de las instituciones comunes al Fondo General de Ajuste alcanzará el importe que resulte de aplicar a la cuantía total del fondo el coeficiente de distribución vertical señalado en el artículo 6 de la presente metodología, siempre que dicho importe no supere la cuantía en valores absolutos que se obtiene de aplicar a los recursos a distribuir la diferencia entre el 99% de su coeficiente vertical y su participación real en dichos recursos a distribuir, en cuyo caso alcanzará esta última cuantía.

## 20. artikulua.– Zenbatekoa, ekarpena eta banaketa.

Funts horren zenbatekoa eta erakundeen arteko banaketa, bai beren behin-behineko zein behin betiko kalkulua egiteko, ondorengo arauen arabera zehaztuko dira:

1.– Egokitzapenerako Funts Orokorraren zenbatekoa.

Egokitzapenerako Funts Oroko-rraren Funtsaren zenbatekoa zatiketa honen araberako zatidura izango da:

– batetik, koefiziente horizontalaren % 99aren eta lurralde historiko bakoitzak Euskadiko diru-bilketa osoan daukan parte-hartze erlatiboaren arteko diferentzia 1.1 artikuluan zehaztutako moduan banaketa-gai den diru-bilketari aplikatuta ateratako zeinu positiboko zenbateko guztien batuketa hartuko da; eta

– bestetik, erakunde erkideen eta foru-aldundien koefiziente bertikalen batuketa, baldin eta ekarpen-koefizientearen % 99tik gora badago bakoitzaren diru-bilketa erlatiboa.

Ondorio horietarako, lurralde historiko bakoitzari dagokion koefiziente bertikala zehazteko, bakoitzaren koefiziente horizontala aplikatu behar zaio erakunde erkideen koefiziente bertikalaren osagarriari.

Egokitzapenerako Funts Orokorra gehienezko zenbatekoak ezin izango du gainditu 5. artikuluan zehaztutako moduan banatu beharreko baliabideen % 1.

2.– Egokitzapenerako Funts Orokerrarako ekarpena.

a) Erakunde erkideek Egokitza-penerako Funts Orokorrari egingo dioten ekarpena metodologia honen 6. artikuluan aipatutako banaketa bertikaleko koefizientea funtsaren zenbateko osoari aplikatuta ateratzen dena izango da, baldin eta zenbateko horrekin bera koefiziente bertikalaren % 99aren eta banatzeko baliabide haietan duten benetako parte-hartzearen arteko diferentzia banatzeko baliabideei aplikatuta lortzen den balio absolutuetako zenbatekoa gainditzen ez bada, kasu horretan % 99 joko du eta.

b) El resto corresponderá a las Diputaciones Forales de acuerdo a sus respectivos coeficientes horizontales.

En el supuesto de que por aplicación de lo anterior la contribución que resulte para alguna diputación foral no beneficiaria del fondo supere el importe de la diferencia entre su recaudación real y el resultado de aplicar el 99% de su coeficiente horizontal a la recaudación total del País Vasco, su contribución quedará fijada en el importe de dicha diferencia. La diputación foral que no siendo beneficiaria del fondo no se encuentre en este supuesto asumirá el importe restante hasta completar la contribución del conjunto de las Diputaciones Forales, con el límite de que el importe de su contribución total no supere la diferencia entre su recaudación real y el resultado de aplicar su coeficiente horizontal a la recaudación total del País Vasco.

3.– Distribución del Fondo General de Ajuste.

En el supuesto de que, situándose la recaudación relativa de dos territorios históricos por debajo del 99% de su respectivo coeficiente horizontal, la cuantía total del Fondo General de Ajuste resulte insuficiente para que ambos alcancen el porcentaje garantizado, la distribución del fondo, excluida la contribución de dichos territorios, se realizará de forma proporcional al importe que cada uno de ellos necesita para alcanzar dicho 99%.

4.– Si por aplicación del límite contenido en el apartado 1 anterior no fuera posible garantizar una recaudación relativa del 99% del coeficiente horizontal para todos los territorios históricos, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas a la vista de los resultados finales y después de dictaminar, previo informe, que la participación relativa en la recaudación total del País Vasco del territorio o territorios históricos que se haya situado por debajo del 99% de su respectivo coeficiente horizontal no ha sido el resultado de diferencias normativas o de gestión respecto al resto de los territorios históricos, adecuará la cuantía del Fondo General de Ajuste, respetando en todo caso los límites a la contribución de cada institución establecidos en el apartado 2 del presente artículo.

CAPÍTULO IV

## REGLAS OPERATIVAS Y OBLIGACIONES DE INFORMACIÓN

### Artículo 21.– Cálculo provisional y plazos de pago de las aportaciones.

1.– Para el cálculo de las aportaciones, general y específicas, de las Diputaciones Forales a las instituciones comunes, a efectuarse durante el ejercicio presupuestario de que se trate, se aplicará la previsión de los ingresos a los que se refiere el artículo 1, realizada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, así como el resto de los mecanismos detallados en el capítulo I, a los efectos de formular los presupuestos del ejercicio por parte del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales.

b) Gainerakoa foru-aldundiei egokituko zaie, bakoitzari bere koefiziente horizontalaren arabera.

Baldin eta aurrekoa aplikatzeagatik funtsaren onuraduna ez den foru aldundi batentzat suerta dadin kontribuzioak gainditzen badu haren benetako diru-bilketa eta koefiziente horizontalaren % 99a Euskadiren diru-bilketa guztiari aplikatzearen emaitzaren arteko diferentziaren zenbatekoa, haren kontribuzioa aipatutako aldearen zenbatekoan finkatuko da. Funtsaren onuraduna ez den foru aldundiak aurreko kasuan ez badago, gainontzeko zenbatekoa bere gain hartuko du foru aldundi guztien kontribuzioa bete arte muga honekin: bere kontribuzioaren zenbateko guztiak ezin du gainditu bere benetako diru-bilketa eta Euskadiren diru-bilketari haren koefiziente horizontala aplikatzearen ondorioaren arteko diferentzia.

3.– Egokitzapenerako Funts Orokorraren banaketa.

Baldin eta, bi lurralde historikoren diru-bilketa bakoitzaren koefiziente horizontalaren % 99tik beherakoa delako, Egokitzapenerako Funts Orokorraren zenbateko osoa nahikoa ez bada bermatutako ehunekoa bi lurraldeok lor dezaten, funtsaren banaketa aipatutako lurraldeon ekarpena kenduta, esandako % 99a lortzeko horietako bakoitzak behar duen besteko proportzioan egingo da.

4.– Aurreko 1. paragrafoan jasotako muga aplikatuta ezin bada lurralde historiko guztietarako koefiziente horizontalaren % 99ko diru-bilketa erlatiboa bermatu, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, azken emaitzak ikusita eta txostena egin ondoren, ebazten badu ezen, delako lurralde historikoak edo direlako lurralde historikoek Euskadiko diru-bilketa osoan duten parte-hartze erlatiboa bakoitzaren koefiziente horizontalaren % 99tik behera gelditu bada, emaitza hori ez dela izan beste lurralde historikoen aldean beren arauak edo kudeaketa diferenteak izan direlako, egokitu egingo du Egokitzapenerako Funts orokorraren zenbatekoa, artikulu honetako 2. paragrafoan erakunde bakoitzaren ekarpenerako ezarritako mugak errespetatuz.

IV. KAPITULUA

## ERAGIKETA-ARAUAK ETA EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

### 21. artikulua.– Ekarpenen aurreikuspe-na eta ekarpenak ordaintzeko epeak.

1.– Foru-aldundiek erakunde erkideei dena delako aurrekontu-ekitaldian egin beharreko ekarpen orokor eta bereziak kalkulatzeko, 1. artikuluan aipatu eta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak egindako diru-sarreren aurreikuspena aplikatuko da, baita I. kapituluan zehaztutako gainerako mekanismoak ere, hain zuzen Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek ekitaldi horretako aurrekontuak egin ahal izan ditzaten.

2.– Las Diputaciones Forales llevarán a cabo, en los plazos que determina el artículo 25 de la Ley 27/1983, seis entregas iguales, por el importe global provisional resultante de la aplicación del apartado anterior.

### Artículo 22.– Modificación de las aportaciones.

Las modificaciones de las aportaciones que se deriven de lo previsto en los artículos 9, 10, 11, 12 y 13 serán distribuidas por partes iguales entre los plazos señalados en el artículo 25 de la Ley 27/1983 aún pendientes de vencimiento.

### Artículo 23.– Preliquidación de las aportaciones.

En el momento en que se efectúe la última entrega se procederá a realizar un ajuste preliquidatorio, en base a las previsiones de liquidación de los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico definidos en el artículo 1, aprobadas por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas con anterioridad al día quince de octubre de cada ejercicio.

### Artículo 24.– Liquidación de las aportaciones.

1.– Dentro de la primera quincena del mes de febrero del ejercicio siguiente el Consejo Vasco de Finanzas Públicas practicará la liquidación de las aportaciones.

2.– A los efectos de esta liquidación se tomarán los datos reales relativos a los ingresos en efectivo procedentes de la recaudación por tributos concertados a los que se refiere el artículo 1.1 según los datos reflejados en las certificaciones emitidas a tal efecto por las Diputaciones Forales.

Cuando en periodo voluntario se admita el pago de la deuda tributaria mediante la entrega de bienes y derechos, el importe de la deuda cancelada en cada ejercicio con dicha entregas se certificará por las Diputaciones Forales. Este importe se adicionará a los datos de las certificaciones mencionadas en el párrafo anterior a efectos de realizar la liquidación de aportaciones.

En los supuestos de cancelación de deudas tributarias en vía de apremio con la obtención de bienes o derechos, su valoración, a efectos de la liquidación de aportaciones, se incorporará a los ingresos sujetos a reparto del ejercicio en que se realice su enajenación o adjudicación con carácter permanente En estos supuestos el importe a incorporar será el derivado de la valoración que de dichos bienes y derechos apruebe el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, quien, cuando lo considere conveniente, podrá periodificar la integración de dicho importe a lo largo de varios ejercicios presupuestarios.

3.– Para la determinación del importe a liquidar de los intereses a que se refiere el artículo 1.2 y de la deducción especial a que se refiere el artículo 3 se procederá a revisar los importes previsionalmente fijados en función del índice de revisión que resulte de la recaudación real a nivel de la Comunidad Autónoma de los tributos concertados, específicamente los relacionados en el artículo 1.1 de la presente metodología, con respecto a los inicialmente previstos. Adicionalmente, en el caso de los intereses, el resultado así obtenido será ponderado por el cociente entre el efectivo tipo de interés bruto acordado

2.– Foru-aldundiek, 27/1983 Legeko 25. artikuluan zehaztutako epeetan, sei emanaldi berdin egingo dituzte, aurreko paragrafoa aplikatuz ateratako aurreikuspeneko zenbateko osoa bete arte.

### 22. artikulua.– Ekarpenak aldatzea.

Aurreko 9, 10, 11, 12 eta 13. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera ekarpenak aldatzen badira, zati berdinetan banatuko dira 27/1983 Legeko 25. artikuluan aipatu eta oraindik bete gabe dauden epeetan.

### 23. artikulua.– Ekarpenen aurre-likidazioa.

Azken emanaldia egiten den unean aurre-likidazioko egokitzapen bat egingo da, 1. artikuluan zehaztu eta Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortutako diru-sarreren likidaziorako aurreikuspenak oinarri hartuta, hauek ekitaldi bakoitzeko urriaren hamabosta baino lehenago Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak onartu ondoren.

### 24. artikulua.– Ekarpenak likidatzea.

1.– Hurrengo ekitaldiko otsailaren lehenengo hamabostaldian egingo du Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak ekarpenen likidazioa.

2.– Likidazio hori egiteko, 1.1 artikuluan aipatutako zerga itunduen diru-bilketatik dirutan egindako diru-sarrerei buruzko benetako datuak hartuko dira oinarri, foru aldundiek horretarako emandako ziurtagirietan adierazitako datuen arabera.

Borondatezko aldian ondasunak eta eskubideak emanez zerga-zorra ordaintzea onartzen bada, emanaldi horiekin ekitaldi bakoitzean kitatutako zorraren zenbatekoa egiaztatuko dute foru aldundiek. Zenbateko hori aurreko lerroaldean aipatutako ziurtagirietako datuei gehituko zaie, ekarpenen likidazioa egiteko.

Ondasunak edo eskubideak eskuratuta premiamendubidez zerga-zorrak kitatzen direnean, ondasun-eskubideok besterendu edo behin betiko esleitzen diren ekitaldiko banaketa-gai diren diru-sarrerei gehituko zaie horien balioespena, ekarpenen likidazioa egin ahal izateko. Kasu horietan, gehitu behar den zenbatekoa Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak ondasun-eskubideon gainean onartutako balioespenetik ateratakoa izango da; Kontseiluak egoki irizten dionean, alditan banatu ahal izango du esandako zenbatekoa sartzeko epea, hainbat aurrekontu-ekitalditan zehar.

3.– Goiko 1.2 artikuluan aipatutako interesak eta 3. artikuluan aipatutako kenkari berezia likidatzeko zenbatekoa zehaztu ahal izateko, aurreikuspenez finkatutako zenbatekoak aztertuko dira, metodologia honetako 1.1 artikuluan aipatzen diren zerga itunduen bidez Autonomia Erkidego osoan benetan bildutako diruetatik sortutako azterketa-indizearen arabera, eta hasiera batean aurreikusitakoekin erkatuko dira. Interesen kasuan, lehengoez gain, haztatu egingo da horrela lortutako emaitza, Autonomia Erkidegoko Administrazioak Erkidegoko finantza-erakundeekin dena delako ekitaldirako itundutako beneta-

por la Administración de la Comunidad Autónoma con las instituciones financieras de la Comunidad para el ejercicio de que se trate y el inicialmente previsto.

ko interes-tasa gordinaren artean eta hasiera batean aurreikusitako interes-tasaren artean zatidura eginez.

4.– Las deducciones a las que se refiere el artículo 2.1 a computar en la liquidación serán las que se deriven del Cupo provisional efectivamente pagado y de las compensaciones provisionales efectivamente realizadas durante el ejercicio.

4.– Likidazioan zenbatzeko izan eta 2.1 artikuluan aipatutako kenkariak, bestalde, benetan ordaindutako behinbehineko kupotik eta ekitaldian zehar benetan egindako behin-behineko konpentsazioetatik sortutakoak izango dira.

## Artículo 25.– Previsión y liquidación de los ajustes entre las Diputaciones Forales.

1.– A los efectos de formular los presupuestos del ejercicio por parte de las Diputaciones Forales, las previsiones de recaudación por el Impuesto sobre el Valor Añadido, los Impuestos Especiales de Fabricación y el Impuesto sobre las Ventas Minoristas de determinados Hidrocarburos de las Diputaciones Forales, se obtendrá por aplicación del respectivo coeficiente de aportación a la previsión de estos ingresos realizada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

2.– La instrumentación a lo largo del ejercicio de los ajustes por el Impuesto sobre el Valor Añadido, los Impuestos Especiales de Fabricación y el Impuesto sobre la Venta Minorista de determinados Hidrocarburos de las Diputaciones Forales, es decir, su determinación, forma y plazos, se realizará conforme al procedimiento aprobado por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

3.– Dentro de la primera quincena del mes de enero del ejercicio siguiente se practicará la liquidación de los ajustes. El resultado de los ajustes correspondientes a un ejercicio se contabilizará por las Diputaciones Forales dentro de los ingresos o pagos efectivos de dicho ejercicio.

## 25. artikulua.– Foru-aldundien arteko egokitzapenen aurreikuspena eta likidazioa.

1.– Foru-aldundiek ekitaldiko aurrekontuak egin ahal izan ditzaten, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak Balio Erantsiaren gaineko Zerga, fabrikazio-zerga bereziak eta zenbait hidrokarburoen txikizkako salmentaren gaineko zerga direla-eta egindako diru-sarreren aurreikuspenari foru aldundi bakoitzaren ekarpen-koefizientea aplikatuz lortuko da zerga horien gaineko diru-bilketaren aurreikuspena.

2.– Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Fabrikazio-zerga bereziak eta zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zerga direla-eta ekitaldian zehar foru aldundiek egokitzapenak gauzatzeko, hau da, egokitzapenon zehaztasuna, forma eta epeak ezartzeko, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako prozeduraren arabera jokatuko da.

3.– Hurrengo ekitaldiko urtarrilaren lehenengo hamabostaldian egingo da egokitzapenen likidazioa. Ekitaldi bateko egokitzapenen emaitza ekitaldi horretako benetako diru-sarreretan edo ordainketetan kontabilizatuko dute foru aldundiek.

## Artículo 26.– Cálculo provisional y liquidación del Fondo General de Ajuste.

1.– El Consejo Vasco de Finanzas de acuerdo a las previsiones presupuestarias establecerá el importe provisional del Fondo General de Ajuste, consignando cada institución la dotación provisional que le corresponda. Dos terceras partes del fondo provisional se aplicarán en el mes de junio coincidiendo con el plazo de pago de la aportación.

2.– Simultáneamente a la liquidación de las aportaciones el Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordará la liquidación definitiva del Fondo General de Ajuste, tras dictaminar, previo informe, que la participación relativa en la recaudación total del País Vasco del territorio o territorios históricos que se haya situado por debajo del 99% de su respectivo coeficiente horizontal no ha sido el resultado de diferencias normativas o de gestión respecto al resto de los territorios históricos.

## 26. artikulua.– Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko kalkulua eta likidazioa.

1.– Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak aurrekontuen aurreikus-penen arabera zehaztuko du Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko zenbatekoa, eta erakunde bakoitzak berari dagokion behin-behineko zuzkidurak jarriko ditu. Behin-behineko funtsaren bi heren ekainean aplikatuko dira, ekarpenaren ordainketa-egunean bertan.

2.– Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak ekarpenen likidazioa egitearekin batera Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin betiko likidazioa egitea erabakiko du. Horretarako, txostena egin ondoren, ebatzia izan beharko du ezen, delako lurralde historikoak edo direlako lurralde historikoek Euskadiko diru-bilketa osoan duten partehartze erlatiboa bakoitzaren koefiziente horizontalaren % 99tik behera gelditu bada, emaitza hori ez dela izan beste lurralde historikoen aldean beren arauak edo kudeaketa diferenteak izan direlako.

## Artículo 27.– Obligaciones de información.

1.– Las Diputaciones Forales remitirán al Gobierno Vasco la información que a continuación se detalla:

## 27. artikulua.– Eman beharreko informazioa.

1.– Ondoren zehazten den informazioa eman behar diote Eusko Jaurlaritzari foru-aldundiek:

– Certificación de los ingresos obtenidos por los diversos conceptos considerados como ingresos sujetos a reparto (R), dentro de los quince primeros días del mes siguiente a que corresponda y conforme a los modelos aprobados en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

– Información relativa a análisis comparativos y descriptivos respecto a las circunstancias concurrentes que puedan afectar a la evolución de los ingresos sujetos a reparto (R), igualmente dentro de los quince primeros días del mes siguiente a que corresponda, conforme a los modelos aprobados en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

– Las estadísticas tributarias cuyo contenido y periodicidad determine el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

– Información relativa a los bienes y derechos en que se haya materializado la recaudación por tributos concertados, conforme a los modelos y plazos aprobados en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas. Dicha información constituirá el registro conjunto de todos los bienes y derechos obtenidos como consecuencia de la recaudación de los tributos concertados.

2.– Asimismo, las Diputaciones Forales pondrán a disposición del Gobierno Vasco la certificación correspondiente de cuantos datos sean precisos para la realización de los cálculos a los que se refiere el presente capítulo IV.

El Gobierno Vasco pondrá a disposición de las Diputaciones Forales cuanta información sea precisa para la correcta aplicación de la presente metodología y de los flujos financieros que se deriven de la misma.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

### Primera.–

En el supuesto de que, por cambios introducidos en el Concierto Económico, en el sistema impositivo o derivados de la economía o cualquiera otra circunstancia de carácter excepcional, fuese necesario introducir alteraciones sustantivas en el modelo de distribución de recursos y de determinación de aportaciones, podrá el Consejo Vasco de Finanzas Públicas proponer las modificaciones metodológicas y de cálculo pertinentes. El Gobierno elevará al Parlamento para su aprobación el correspondiente proyecto de ley que incorpore las modificaciones que se propongan.

### Segunda.–

1. El Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordará los objetivos de estabilidad presupuestaria de las instituciones públicas del País Vasco, en el marco de los compromisos que para la Comunidad Autónoma del País Vasco se adopten en aplicación de lo previsto en el artículo 62 del Concierto Económico.

– Banaketa-gai diren (R) diru-sarrera kontzeptuen bidez lortutako diru-sarreren ziurtagiria, dagokion hilaren hurrengoaren lehenengo hamabost egunen barruan, eta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren baitan onartutako ereduekin bat etorriz.

– Aipatutako (R) banaketa-gai diren diru-sarreren bilakaerari eragin diezaioketen gorabeherei buruzko konparazioko eta azalpeneko analisien gaineko informazioa; hori ere, dagokion hilaren hurrengoaren lehenengo hamabost egunen barruan, eta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren baitan onartutako ereduekin bat etorriz.

– Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak zehaztutako eduki eta aldizkakotasunez, zerga-estatistikak.

– Zerga itunduak direla-eta diru-bilketa gauzatzeko jasotako ondasunen eta eskubideen gaineko informazioa, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren baitan onartutako ereduekin eta epeekin bat etorriz. Informazio hori izango da zerga itunduen diru-bilketa dela-eta lortutako ondasun eta eskubide guztien Erregistro bateratua.

2.– Era berean, IV. kapitulu honetan aipatutako kalkuluak egiteko beharrezko datu guztien ziurtagiria jarriko dute foru aldundiek Eusko Jaurlaritzaren eskueran.

Eusko Jaurlaritzak foru aldundien eskueran jarriko du metodologia hau eta hortik sortutako finantza-emariak zuzen aplikatzeko beharrezko informazio guztia.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehena.–

Baldin eta Ekonomia Itunean edo zerga-sisteman sartutako aldaketen-gatik edo ekonomiak edo salbuespeneko beste gorabeheraren batek eragindakoengatik baliabideen banaketa-ereduan eta ekarpenak zehazteko ereduan ere funtsezko aldakuntzak sartu behar badira, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak aldakuntzak proposatu ahal izango ditu metodologian eta kalkuluetan. Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari bidaliko dio proposatutako aldakuntzak jasoko dituen lege-egitasmoa, onar dezan.

### Bigarrena.–

1.– Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak erabakiko ditu Euskadiko herri-erakundeen aurrekontuen egonkortasunari buruzko helburuak, Ekonomia Ituneko 62. artikuluan aurreikusitakoa aplikatzeko Euskal Autonomia Erkidegorako onartutako konpromisoen esparruaren baitan.

2.– A los efectos de dar cumplimiento a las previsiones de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, en sus artículos 14.2 y 27.4, la coordinación y armonización de la política de endeudamiento y, en general, de la actividad financiera de la Hacienda General del País Vasco y de los territorios históricos corresponderá al Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

Asimismo, a los efectos de dar cumplimiento a las previsiones de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, en su disposición adicional segunda, apartado 3.2, las operaciones de crédito a plazo superior a un año que deseen concertar los entes locales se coordinarán y armonizarán con las de los territorios históricos y con la política de endeudamiento de la Comunidad Autónoma en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

3.– Se articularán los mecanismos oportunos de seguimiento y control a fin de valorar el grado de cumplimiento de las directrices marcadas en cuanto a la política presupuestaria y financiera.

## Tercera.–

1.– El Consejo Vasco de Finanzas Públicas determinará por unanimidad la forma de financiar las cantidades correspondientes a la ejecución de determinados planes y proyectos que, bien por incidir en competencias de la Administración del Estado, bien por tener una relevancia capital para la promoción y el desarrollo económico del País Vasco, precisen de una asignación de recursos muy importante y afecten al conjunto de todas las instituciones.

2.– Cuando la financiación de los planes y proyectos aprobados al amparo de esta disposición adicional se realice mediante su consideración como deducción especial al modelo de distribución vertical, se actuará conforme a lo establecido en los artículos 3 y 8 de la presente metodología, siendo su cuantía inicial y final la que determine el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

A estos efectos para la aprobación de los futuros proyectos de cooperación se establecerá el criterio de adhesión voluntaria de los tres niveles institucionales. En todo caso deberán respetarse las cuantías que a la entrada en vigor de la presente metodología hubieran sido aprobadas por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

## Cuarta.–

1.– Los órganos forales de los territorios históricos, sin perjuicio de sus facultades reconocidas en el Concierto Económico y en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, utilizarán el criterio de riesgo compartido al establecer anualmente la participación de los entes locales en los ingresos concertados correspondientes a los territorios históricos.

2.– Igualmente, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas recomienda a los órganos forales de los territorios históricos que destinen, a través de la financiación general y en su caso de los planes específicos de inversión, a los entes locales de ellos dependientes, en concepto de participación en la recaudación por tributos concertados, como mínimo el 54,70% del resultado de la siguiente expresión:

2.– Azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 14.2 eta 27.4 artikuluetan aurreikusitakoa bete ahal izateko, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluari dagokio Euskadiko Ogasun Nagusiko eta lurralde historikoetako ogasunen zorpetze-politika eta, orokorrean, finantza-jarduera koordinatu eta harmonizatzea.

Era berean, azaroaren 25eko 27/1983 Legeko Bigarren Xedapen Gehigarriko 3.2 paragrafoan aurreikusitakoak betetze aldera, toki-erakundeek itundu nahi dituzten urtebetetik gorako kreditu-eragiketak lurralde historikoekin eta Autonomia Erkidegoaren zorpetze-politikarekin koordinatu eta harmonizatuko dira, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren baitan.

3.– Jarraipenerako eta kontrolerako mekanismoak araututuko dira, aurrekontu-politikari eta finantza-politikari buruz agindutako jarraibideak noraino bete diren balioesteko.

## Hirugarrena.–

1.– Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak aho batez zehaztuko du zenbait plan eta proiektu burutzeko zenbatekoak finantzatzeko modua, bai Estatuko Administrazioaren eskumenetan eragina dutelako, bai Euskadiren sustapenerako eta ekonomia-garapenerako berebiziko garrantzia dutelako, garrantzi handiko baliabide-izendapenak behar badituzte eta erakunde guztietan eragina badute.

2.– Xedapen gehigarri honen babespean onartutako plan eta proiektuen finantzaketa banaketa bertikaleko ereduaren kenkari berezi moduan hartzen bada, metodologia honetako 3 eta 8. artikuluetan ezarritakoaren arabera jokatuko da, eta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak zehaztutakoak izango dira hasierako eta amaierako zenbatekoak.

Horretarako, geroko lankidetza-proiektuak onartu ahal izateko, hiru erakunde-mailen borondatezko atxikimenduaren irizpidea ezarriko da. Nolanahi ere, errespetatu egin beharko dira metodologia hau indarrean sartzean Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako zenbatekoak.

## Laugarrena.–

1.– Lurralde historikoetako foru-erakundeak, Ekonomia Itunean eta azaroaren 25eko 27/1983 Legean onartuta dituzten eskumenak ere baztertu gabe, arrisku partekatuaren irizpideaz baliatuko dira lurralde historikoei dagozkien zerga itunduetan toki-erakundeen parte-hartzea urtero ezartzeko garaian.

2.– Era berean, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak gomendioa egiten die lurralde historikoetako foru-organoei ondorengo adierazpenaren emaitzaren % 54,70 gutxienez erabil dezaten beren menpeko toki-erakundeentzat, finantzaketa orokorraren bidez eta inbertsio-plan berezien bidez, zerga itunduekin egindako diru-bilketan parte izan dezaten:

Rdi – Dfi

siendo:

RDi los recursos disponibles del territorio histórico, definidos por:

Rdi = (Ri – Di – Pi – Agi – Ti ± Fgi)

- Ri son los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico, sujetos a reparto: recaudación por tributos concertados e intereses líquidos por razón de tributos concertados.
- Di son los ajustes procedentes de la metodología del cupo: cupo líquido al Estado, compensaciones de la metodología de Cupo, ampliaciones de la Policía Autónoma y traspaso de nuevas competencias al País Vasco.
- AGi es la aportación general a las instituciones comunes.
- Pi son las deducciones especiales.
- Ti es la valoración de los nuevos traspasos desde las instituciones comunes a los órganos forales a los que se refiere el artículo 10 de la presente metodología.
- FGi es el Fondo General de Ajuste neto.

DFi es la suma de las siguientes deducciones:

– deducción para financiar los traspasos asociados a las entidades gestoras de la Seguridad Social, cuando el ejercicio de la competencia corresponde a las instituciones forales.

– deducción para financiar los traspasos de competencias a los órganos forales efectuados en el quinquenio 1997-2001.

– deducción por la compensación por ingresos provinciales sustituidos por el IVA.

El importe total de estas deducciones para el ejercicio 2007 se fijará por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas y se actualizará para cada ejercicio por aplicación del siguiente índice:

$$\text{Índice de actualización} = \frac{RD_i^t}{RD_i^o}$$

Donde

$RD_i^t$ son los recursos disponibles del territorio i en el ejercicio t y $RD_i^o$ en el año base 2007, en términos homogéneos.

El subíndice i indica que el importe de cada concepto será el efectivamente correspondiente a cada territorio histórico.

Rdi – Dfi

hor:

RDi lurralde historikoaren baliabide erabilgarriak dira, honela zehaztuta:

Rdi = (Ri – Di – Pi – Agi – Ti ± Fgi)

- Ri Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortu eta banaketa-gai diren diru-sarrerak dira: Zerga itunduak direla-eta egindako diru-bilketa, eta zerga itunduak direla-eta sortutako interes likidoak.
- Di kupoaren metodologiatik sortutako egokitzapenak dira: Estatuari ordaintzeko kupo likidoa, kupoaren metodologiaren konpentsazioak, Ertzaintza handitzea eta Euskadiri eskumen berriak eskualdatzea.
- AGi erakunde erkideentzako ekarpen orokorra da.
- Pi kenkari bereziak dira.
- Ti erakunde erkideek foru-organoei egin eta metodologia honetako 10. artikuluan aipatutako eskualdaketa berrien balioespena da.
- FGi Egokitzapenerako Funts Orokor garbia da.

DFi ondorengo kenkarien batuketa da:

– Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileei lotutako eskualdaketak finantzatzeko kenkaria, eskumen hori baliatzea foru-erakundeei dagokienean.

– joan zen 1997-2001 bosturtekoan foru-organoei eskualdatutako eskumenak finantzatzeko kenkaria.

– BEZarekin ordezkatu diren probintziako diru-sarreren konpentsazioko kenkaria.

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak ezarriko du 2007 ekitaldirako kenkari horien zenbateko guztia eta ekitaldi bakoitzerako eguneratuko dira indize hau aplikatuta:

$$\text{Eguneratzeko indizea} = \frac{RD_i^t}{RD_i^o}$$

Hor,

$RD_i^t$ t ekitaldian i lurraldeko baliabide erabilgarriak dira, eta $RD_i^o$ 2007 oinarriko urtean, baldintza homogeneotan.

Horko i azpi-indizeak adierazten du kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa lurralde historiko bakoitzari benetan dagokiona izango dela.

3.– Los importes que resulten para cada ejercicio según la metodología anterior y que hayan sido puestos a disposición de los entes locales de cada territorio histórico estarán sujetos a liquidación una vez finalizado el ejercicio y realizada la liquidación prevista en los artículos 24 y 26 de la presente metodología.

A efectos de realizar dicha liquidación, las deducciones DFi calculadas inicialmente para el ejercicio se liquidarán aplicando el índice que resulte del cociente entre los recursos disponibles liquidados y los recursos disponibles iniciales del territorio en dicho ejercicio.

3. Aurreko metodologiaren arabera ekitaldi bakoitzerako ateratako zenbatekoak, lurralde historiko bakoitzeko toki-erakundeen eskura jarrita daudela, ekitaldiaren amaieran likidatu egin behar dira, metodologia honetako 24 eta 26. artikuluetan aurreikusitako likidazioa egin eta gero.

Likidazio hori egiteko, honela likidatuko dira ekitaldirako hasieran kalkulatutako DFi kenkariak: ekitaldi horretan lurraldeko baliabide erabilgarri likidatuen eta hasierako baliabide erabilgarrien arteko zatiduratik ateratako indizea aplikatuta.

### Quinta.–

Las transferencias procedentes de los fondos estructurales de las comunidades europeas serán ingresos cuya titularidad corresponde tanto a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma como a los órganos forales de los territorios históricos.

### Bosgarrena.–

Europako erkidegoetako egitura-funtsetatik etorritako eskualdaketak Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen titularitateko diru-sarrerak izango dira.

### Sexta.–

Si en el transcurso de la vigencia de la presente metodología al finalizar cada ejercicio se presentaran desequilibrios económico-financieros en alguna o algunas de las instituciones forales producidas por el diferente peso específico que las mismas tienen en el modelo de distribución de recursos, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, tras realizar los informes pertinentes, adoptará las medidas necesarias para su corrección.

### Seigarrena.–

Metodologia hau indarrean dagoen artean ekitaldi bakoitza amaitzean foru-erakunderen baten edo batzuetan ekonomiako eta finantzetako desorekak agertzen badira, erakundeotako bakoitzak baliabideen banaketa-ereduan duen pisu espezifikoaren eraginez, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak hori zuzentzeko beharrezko neurriak hartuko ditu, bidezkoak diren txostenak egin ondoren.

### Séptima.–

Durante la vigencia de la presente metodología, el importe de la financiación de las ampliaciones de la plantilla de la Policía Autónoma aprobadas en el quinquenio 2002-2006 será el que en cada ejercicio se deduzca de la aplicación de los acuerdos adoptados en el seno de la Comisión Mixta de Concierto Económico.

### Zazpigarrena.–

Metodologia honek indarrean dirauen artean 2002-2006 aldirako onartutako Ertzaintzaren plantilla handitzeen finantzaketarako zenbatekoa izango da Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren baitan har daitezen akordioak betetzetik ekitaldi bakoitzean eratortzen dena.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En el año 2007, y a la vista de los acuerdos financieros con el Estado, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas decidirá sobre la aplicación de lo previsto en los artículo 2.1.d) y 8.b) al Acuerdo Primero de la Comisión Mixta de Concierto Económico de 6 de octubre de 2005.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

2007 urtean eta Estatuarekiko finantza-akordioak aintzat hartuta, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak erabakiko du 2.1.d) eta 8.b) artikuluetan aurreikusitakoa 2005eko urriaren 6ko Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoaren Lehenengo Akordioari aplikatzeari buruz.

## DISPOSICIÓN FINAL

Excepcionalmente, si transcurrido el plazo de vigencia de la presente metodología no se hubiera promulgado una nueva ley reguladora de la distribución de recursos y determinación de aportaciones para los ejercicios siguientes, la presente metodología será de aplicación en todos sus términos para el ejercicio 2012 y siguientes.

## AZKEN XEDAPENA

Salbuespenez, metodologia honen indarraldia amaitu eta gero, hurrengo ekitaldietarako baliabideen banaketarako eta ekarpenak zehazteko beste lege arautzaile berririk oraindik aldarrikatu ez bada, metodologia hau berau aplikatuko da oso-osorik 2012ko eta hurrengo ekitaldietan.

*I. ERANSKINA*[1]
ANEXO I[2]

## *2007KO KOEFIZIENTE BERTIKALAREN KALKULUA*
## CÁLCULO DEL COEFICIENTE VERTICAL 2007

*2007AN FINANTZATU BEHARREKO GASTUAK*
GASTOS A FINANCIAR EN 2007

| | *FORU ALDUNDIAK* DIPUTACIONES FORALES | *EUSKO JAURLARITZA* GOBIERNO VASCO | *GUZTIRA* TOTAL |
|---|---|---|---|
| 1.– *ITUNAREN KUDEAKETATIK SORTUTAKO DIRU SARREREKIN FINANTZATU BEHARREKO GASTUAK* GASTOS A FINANCIAR CON INGRESOS DERIVADOS DE LA GESTIÓN DEL CONCIERTO | 12.908.242.052 | 8.016.677.128 | |
| 2.– *KENKARIAK* / DEDUCCIONES | -9.544.446.608 | -153.153.748 | |
| • *Estatuari ordaindu beharreko 2007ko kupo likidoa eta konpentsazioak* Cupo líquido al Estado y compensaciones 2007 | -1.453.378.800 | | |
| • *2006ko kupoaren likidazioa eta konpentsazioak* Liquidación Cupo y compensaciones 2006 | -119.390.680 | | |
| • *2005-10-06ko Ekonomia-Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo akordioa* Acuerdo primero Comisión Mixta de Concierto Económico de 6 de octubre de 2005 | | -43.592.150 | |
| • *Ertzaintza* Policía Autónoma | | -38.239.980 | |
| • *EAErako ekarpenak* Aportaciones a la CAPV | -8.016.677.128 | | |
| • *L.H. Legeko 22.3. artikuluko politikak* Políticas art. 22.3 L.T.H. | | -26.321.618 | |
| • *Udal finantziazio berria (1)* Nueva financiación municipal (1) | 45.000.000 | -45.000.000 | |
| 3.– *FINANTZATU BEHARREKO GASTUAK* *GASTOS A FINANCIAR* | 3.363.795.444 | 7.863.523.380 | 11.227.318.824 |
| *ATERATZEN DEN KOEFIZIENTEA* *COEFICIENTE RESULTANTE* | 29,96 % | 70,04 % | |

(1) *Eusko Jaurlaritzaren ekarpena*
Contribución del Gobierno Vasco

[1] *2007/2. Legearen hutsen zuzenketaren araberako idazkera. Zuzenketa hori 2007.eko apirilaren 26ko 80. zenbakidun EHAAn argitaratu zan*
[2] Redactado conforme a lo dispuesto en la corrección de errores de la Ley 2/2007, según se ha publicado en el BOPV nº 80, de 26 de abril de 2007

*II. ERANSKINA*[1]
ANEXO II[2]

## *DIRU BILKETARAKO GAITASUNA: DIRU BILKETAKO KONTZEPTUAK ETA EKONOMIAREN ADIERAZLEAK*
## CAPACIDAD RECAUDATOR IA: CONCEPTOS RECAUDATORIOS E INDICADORES ECONÓMICOS

| *KONTZEPTUA* / CONCEPTO | *ADIERAZLEA / INDICADOR* |
|---|---|
| *Bakoitzaren lanagatiko atxikipenak*<br>Retenciones trabajo personal | • *Lansariak eta soldatak*<br>Sueldos y salarios |
| *PFEZren kuota diferentziala*<br>Cuota diferencial IRPF | • (1)<br>(1) |
| *Kapitalaren atxikipenak, ordainketa zatikatuak eta sozietateak*<br>Retenciones de capital, pagos fraccionados y sociedades | • *Ustiaketaren gaindikin garbia*<br>Excedente neto de explotación |
| *BEZ guztira (bakoitzaren kudeaketa + egokitzapenak)*<br>Total IVA (gestión propia + ajustes) | • *Ekarpen-indizea*<br>Indice de aportación |
| *Garraiobideen gaineko zerga berezia*<br>Impuesto especial sobre medios de transporte | • *Matrikulatutako beribil-kopurua*<br>N.º de turismos matriculados |
| *Fabrikazio-zerga berezien guztizkoa (bakoitzaren kudeaketa + egokitzapenak)*<br>Total impuestos especiales fabricación (gestión propia + ajustes) | • *Ekarpen-indizea*<br>Índice de aportación |
| *Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zerga*<br>Impuesto sobre ventas minoristas de determinados hidrocarburos | • *Ekarpen-indizea*<br>Índice de aportación |

(1) *PFEZren kuota diferentzial garbiari dagokion zenbatekoa proportzioan egotziko zaio zerga horren osagarri bakoitzari.*
El importe correspondiente a la cuota diferencial neta del IRPF se atribuirá proporcionalmente a cada uno de los componentes de la recauda ción de dicho impuesto.

[1] *2007/2. Legearen hutsen zuzenketaren araberako idazkera. Zuzenketa hori 2007.eko apirilaren 26ko 80. zenbakidun EHAAn argitaratu zan*
[2] Redactado conforme a lo dispuesto en la corrección de errores de la Ley 2/2007, según se ha publicado en el BOPV nº 80, de 26 de abril de 2007